

**Santa
Agedari
kantari**

Talde asko aterako
da bihar ▶ 7



Azken entseguak burutu eta festa hasteko prest da Tolosa

ENTSEGUAK ▶ Aisialdi taldeek eta danborradak egin dituzte; kaleak apainduta, barrakak, txosnak...

FESTA ▶ Txupinazoarekin hasiko dira festak eguerdian; eskualdeko herrietan ere bada zer ikusi ▶ 2,5

TOLOSA ▶

**San Blas
eguna
ospatuko
dute gaur**

Meza, bedeinkapena eta toka lehiaketa izango dira ▶ 6

TOLOSA ▶



IMANOL GARCIA

**Odol
Emaileen
Elkartea, LH
Institutuan** ▶ 6



Kirikiño aisialdi taldeko neska-mutilak Astelenitako konpartsako entsegu batean. INIGO TERRADILLOS

TOLOSA ▶

Autogarbigarria den komuna ireki dute zezen-plazan

Lehengo kioskoaren parean jarri dute; barruan hobekuntzak egin dituzte ▶ 6



**Sastreria
Aranguren**

Gizon eta emakume

**Ondo pasa
Inauteriak!**

Korreo, 4 • Tel.: 943 670525
Korreo, 1 • Tel.: 943 673311
TOLOSA



Gaztain erreak 60. hamarkadako Inauterietan

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Tolosako Rondilla kalea da. Aurreko mendeko 60. hamarkada. Koadrila honek danbolinak gaztainak erre zituen egun hartan. Otsailan ez da harritzekoa hotza egitea eta ederki etorriko zitzaizkien gaztainak erre berriak berotzeko. Jantziak ere ikustekoak dira: oso sinpleak, garai haien adierazle.

Hori da Tolosako Inauterien filosofia: gauza gutxi eta irudimen handiarekin ondo pasatzea egun hauek. Ikusmina behintzat lortu zuen koadrila honek, inguruan duten jendea ikusita. Ezagutzen al duzue norbait Juan Bautista Aranzabek utzitako argazki honetan? HITZA

LUXIO ARANBURU ▶ MUSIKARIA

«Makina bat kolpe jaso ditut ezpainenetan, jendeak bultzatuta»

Joxemi Saizar. Duela 50 urte hasi zen Inauterietara etortzen klarinetea jotzera eta behin bakkarik egin du huts, greba bat zela eta. Poca Tripa eta Kabi Alai txarantetan aritzen da. Mendi munduan ere oso ibilia eta ezaguna da. Gaur beteko ditu 69 urte.

Nongoa zara?

Gabirian jaio nintzen, baina segituan Tolosara etorri nintzen bizitzera. 12 urterekin Andoainera joan nintzen eta han jarraitzen dut.

Noiz sartu zinen musika munduan?

Andoainean, Alberto Agirre organojolearekin. Gero klarinetean Donostian ikasi nuen Antonio Lopezekin. 1952an hasi nintzen Andoaingo bandan jotzen. Etxean denbora galtzea zela esaten zidaten.

Eta Tolosako Inauterietan?

1955ean joan nintzen lehen aldiz Veletara, Andoaingo Bandako beste batzuekin. Orduan Santa Maria kalean zegoen, orain Aurrera dagoen tokian.

Gero Poca Tripa sortu zen 1963an eta han hasi nintzen. Kabi Alain 1973an hasi nintzen. Bi horietan jarraitzen dut Astelenetan eta Asteartitan. Zaldunitan jai egiten dut. Nahikoa da. Iaz opari bat egin ziguten Poca Tripa Villabonako Jesus Mari Beristain tronpetajoleari eta niri.

Behin kale egin zenuen.

Bai, greba zela esan zidaten —Burgoseko prozesuagatik uste dut— eta ez nintzen joan, baina gero atera egin ziren. Urte batzuk beranduago metalaren greba zen. Denak belurtuta zeuden, jotzera ausartu gabe. Jotzen atera ginen eta atzetik beste txaranga guztiak.

Non gehiago jo duzu?

Behin Polvo y Pajarekin. Alcoyanorekin kanpoan. Tolosako Musika Bandan eta Umore Ona orkestrinan jo izan dut askotan. Rekintoa, saxofoia eta txistua ere zerbaite jo izan dut.

Anekdotaren bat.

1956an otsaila osoa izoztuta egon zen. Rekintoarekin ari



HITZA

KORTXEA BATEAN ▶

Pieza bat? Denak. Gure Txokoa oso ondo dago armonizatuta. Batzuk gogorak dira, Sukalde adibidez.

Zuzendari bat? Poca Tripa Patxi Otaegi. Polvo y Pajako Ander Letamendia ere bai.

Txaranga bat? Veletara Andoaingo Bandako asko joaten ginen eta txaranga baino banda zirudiela esaten ziguten.

nintzen eta azpitik txistua atera bezain pronto izoztu egiten zen. Beste behin klarineteko anilla batzuk erori zitzaizkidan, ardatza askatuta. Atzera bueltatu eta aurkitu nituen. Lehen klarinetearekin jarraitzen dut jotzen. Makina bat kolpe jaso ditut ezpainenetan, kalejiretan jendeak bultzatuta.

Zertan aldatu dira Inauteriak?

Asko ez. Orain zalaparta gehiago izaten da. Eta gazte jendea segituan txoratzen da, ez du hainbeste kontrolatzen. ◀

DATUA ▶

100 lagun inguru aterako dira gaur Aurreko antolatutako danborradan: 25 kupel, 25 danbor, musikariak, kantinerak, *majoretteak*, txerrikumeak, Ostegun Gizen... 1987an hasi ziren antolatzen, larunbateko danborradan lekurik ez zutela ikusita —urtero bost elkarte ateratzen dira txandatu, hamabost guttira—. Lehen urtean kartoizko danborrak atera zituzten Casa Angelitan alokatuta. Gero Andoaingo Santa Kruz peñak utzi zizkien. Gaur egun bereak dituzte. Karrozak zerri bat irudikatzen du. Txerrikumeez txanpaina banatzen dute eta Ostegun Gizenek, txistorra.

AUTOBUSAK ▶



Tolosako hiribusa. I.TERRADILLOS

Tolosako hiribusak zerbitzu bereziak izango ditu egun hauetan.

▶ Gaur, Ostegun Gizen.

Goiz eta arratsalde orduetgi normala bi lineetan, baina 2. lineak zerbitzu bereziak izango ditu 21:00etan, 21:30ean eta 22:00etan.

▶ Etzi, Zaldunita bezpera.

Goizean bi lineak normal ibiliko dira. Arratsaldean biak elkartuko dira eta 21:30ean eta 22:00etan zerbitzu bereziak izango dira. Hau da linea batuen ibilbidea:

Musika Eskola-San Frantzisko-Geftoki-Araba et-lurre-Berazubi kiroldegia-Paper Eskola-lurreamendi egoitza-Usabal-Amaroz-Amaroz 30-San Blas-lparragirre-Bizkaia-Kondeko Aldapa 5-lbaiondo-Trinkete-Musika Eskola.

▶ Aparkalekuak.

Egun hauetan ezingo da herrian sartu autoz. Usabal eta San Estebango aparkalekuetan utzi eta autobusak erabiltzea gomendatzen dute.

KANTAK ▶

'PINTXANA'

Pin, pin, pinxanarrak gu gura pin, pin, pinxanarrak beti. Umore ona pasatzen degu beti sagardotegian, gu bezelakorikan ez baita Tolosako errian.

Neska gaztiak ez lotsik euki guregana etortzeko, pinxanarrak beti zai gaude zuekin dantzatzeko.

LUIS REZOLA 'TXIMELA'



TOLOSALDEKO HERRIETAKO EGITARAUA ▶

ZER ETA NON, EGUNEZ EGUN ▶

TOLOSA

▶ OSTEGUN GIZENA

09:13. Etxe-berri-ko oinordekoen Udal bandoa.
11:30. Udal Txistulari Bandak *Inauterietako zortzikoa* joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
11:45. Kabi Alai Elkarteko Korporazioaren pregoia.
12:00. Plaza Zaharrea, suzuria jaien hasiera iragartzeko.
12:00. Pintxana eta Kabi-Alai txarangaren irteera, Arostegieta kaletik.
16:30. Zezen-plazan xexen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek alaituta. Ondoren, kalejira.
23:00. Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

Txosnagunean

12:30. Txupinazoa eta txistorrada trikitilariarik alaiturik.
00:00. Irritzit lehiaketa.

▶ OSTIRAL MEHE

16:30. Zezen-plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangek alaituta. Ondoren, kalejira.
22:45. Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor zinema antzokian.

Txosnagunean

18:30. Graffiti lehiaketa (Izena emateko: 607 855 064; Garikoitz).
20:00. Sagardo dastaketa.
21:00. Afari herrikoa (salneurria: 5 euro).
23:00. Kontzertuak: Senaz, Izeba Pilarren ilobak eta Kudai.
Ondoren. *Objektuak bilatu* lehiaketa.

▶ ZALDUNITA BEZPERA

10:30. Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Tolosako Dultzaineroekin. Plaza Zaharretik irtengo dira.
11:30. Kabi-Alai Elkarteko txarangaren irteera.
17:00. Kabi-Alai Elkarteko txarangaren irteera.
17:00. Haur Danborrada aterako da Geltoki kaletik.
22:30. Tolosako Danborradaren irteera Triangulotik. Ekitaldia *Galtzaundi* Kultur Etxeko balkoira igoz amaitekuko da.
23:30. Plaza Berrian disko



Igandetik aurrera, mozzorro eta kolorez beteko da Tolosa; inguruetako herri asko ere bai. HITZA

festa, eta Iraunkorrek eta Oriako txarangek kalez kale ariko dira.

Txosnagunean (Haurren Eguna)

Arratsaldean. Haur danborradaren ostean, haur jolasak, pailazoak eta txokolatada.
00:00. Bertso lehiaketa.

▶ ZALDUNITA

08:00. Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
10:00. Herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea eginez *Inauterietako zortzikoa* joko du.
10:00. Txarangaren irteera.
10:30. Plaza Zaharrea eta Solana kalean, sokamuturra.
11:30. Karroza eta konpartsen irteera.
15:45. Herriko txistulari bandak *Idiarena* pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
16:00. Kalejira Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukalde txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazaraino.
16:30. Zezenak zezen-plazan; txarangek eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.
19:00. Dantzaldia Plaza Berrian, Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukalde txarangekin.
23:30. Plaza Berrian disko festa eta Incansables eta Oriako txarangek kalez kale irtengo dira.

Txosnagunean

Egunez. Kale animazioa.
00:00. Koadrilen arteko mozzorro lehiaketa.

▶ ASTELENITA

09:00. Txarangaren irteera.
10:30. Plaza Zaharrea eta Solana kalean, sokamuturra.
11:30. Karrozen eta konpartsen irteera.
16:00. Kalejira Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.
16:30. Zezenak zezen-plazan; txarangek ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.
19:00. Dantzaldia Plaza Berrian, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.
21:30. Korazonistak plazatik zezen suzkoa irtengo da.
23:30. Incansables txaranga irtengo da kalera.
00:00. Kontzertua Plaza Berrian Ikus eta Kauta taldeekin. Ondoren, DJ Bull.

Txosnagunean

00:00. Garagardo lehiaketa.

▶ ASTEARTITA

06:00. Herriko txistulari bandak alborada joko du udaletxeko arkupeetan, Berdura plazan eta Gorriti plazan.
08:00. Pattar zezena zezen-plazan. Ondoren, kalejira.
10:30. Plaza Zaharrea eta Solana kalean, sokamuturra, Txapel Haundi txarangek alaituta.
11:30. Karrozen eta konpartsen irteera.
15:45. Herriko txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, *Idiarena* pieza joko du.
16:00. Kalejira San Esteban, Kabila eta Urdiña Txiki txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.
16:30. Zezenak zezen-plazan; txarangek eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen.

Ondoren, kalejira.
19:00. Dantzaldia Plaza Berrian, San Esteban, Kabila eta Urdiña Txiki txarangekin.
23:30. Incansables Zaharrak txarangaren irteera.

Txosnagunean

00:00. Indar lehiaketa.

▶ PIÑATA IGANDEA

Goizean. Poca Tripa eta Txilaba elkartearen konpartsa lurreamendi egoitzara joango dira.

ABALTZISKETA

▶ IGANDEA

Goizean. Txantxoak udaletxean elkartu eta herrian ibiliko dira.

ADUNA

▶ BIHAR

14:30. Elordi plazako lokalean, haurren jaialdia.

ALKIZA

▶ BIHAR

14:30. Dantza eta ume jolasak, herriko plazan.



Amezketako talai-dantzariak. o.e.

AMEZKETA

▶ BIHAR

15:30. Abaltzisketako eta Amezketako Zumadi eskolako haurrek Inauterietako desfilea egingo dute plazan.

▶ IGANDEA

09:00. Talai-dantzariak plaza inguruan ariko dira dantzatzen, 14:00ak arte.

▶ ASTELEHENA

09:00. Baserriz baserri jardungo dute talai-dantzariak dantzari, 15:00ak arte. Gauean, afaria egingo dute.

ASTEASU

▶ BIHAR

15:30. Frontoira iritsiko dira Pello Errota eskolako Inauteri desfilean irteten dutenak, eta ondoren jaialdia egingo dute.

BIDEGOIAN

▶ BIHAR

14:30. Albizturko haurrekin batera, Inauteri desfilea.

IKAZTEGIETA

▶ GAUR

15:30. Inauterietako ohiko jaialdia, eskolako gimnasioan.

IRURA

▶ GAUR

12:00. Inauteri festa plazan.

VILLABONA

▶ GAUR

15:15. Haur eskola eta herriko ikastetxeetako haurren mozzorro kalejira Incansables txarangekin. Ondoren, askaria Errebote plazan.

ZIZURKIL

▶ GAUR

10:45. Pedro Mari Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotza ikastetxeen kalejira. 11:30ean, emanaldia Joxe Arregi plazan.

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

Ondo pasa inauterietan

Arrostegieta eg. 20400 TOLOSA. Tel.: 943 673 533
www.mmagenda.com tolosa@mmagenda.com

KARMELE
ileapaindegia eta gaiak
ONDO PASA INAUTERIETAN!
San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02



PRESTAKETAK ▶

Festarako dena prest!

Aisialdi taldetakoez azken ukituak eman dizkiete euren dantzei; barrakak ere Geltoki aldean zabalak daude gaurtik aurrera; herria guztiz mozorrotu da Inauteriak behar bezala ospatzeko gogoz



Kirikiño. John Travoltari omenaldi berezia egingo die bere hiru film dantzatu. irigo TERRADILLOS



Tenttek. La Sirenia filmeko itxaso azpiko pertsonaien bilakatuko dira gazte hauek. irigo TERRADILLOS

IASIALDI TALDEAK ▶

IRIGO TERRADILLOS
NOELIA LATABURU

Astelentia egunean dantzan ateratzeko azken astealako asieburuetan gogoz egin dute lan dantza entseguetan, Tolosa eta libarrak aisialdi taldeek.

KIRIKIÑO

Mozorroa. John Travoltari omenaldia. *Fiebre del sábado noche*, *Grease* eta *Pulp Fiction* filmak irudikatuko dituzte.

Partaideak. 270.

TENTTEK

Mozorroa. Urpean antuko da talde hau, *La sirenia* filma irudikatuko baidute.

Partaideak. 50.

TXIRIBITU

Mozorroa. Pailazoaren banboia aukeratu dute.

Partaideak. 40.

SAN BERNARDO

Mozorroa. Masai tribu afrikarren antzera jantzi dute.

Partaideak. 90.

KAZKABARRA

Mozorroa. Euskal jaietako pertsonaiak, Marijale, Danborriak, iparraldeko Txerriak, Zehedoa, San Fermín eta Galzandri arko dira dantzan.

Partaideak. 203.

ATSEDEMA

Mozorroa. Harry Potter magoa bilakatu dira.

Partaideak. 108.

Festa, kolorea, algar, dantzak, doinuak, txarangak, erritmoak, mozorroak, barrakak... gaur hasi eta sei egunetan zehar hau guztia izango da nagusi Tolosa kaleetan barrena. Dana prest zateko, ordea, txupinazoaren aurreko asteetan lan handia egin duen taldea dago atzean.

Aisialdi taldeak dantzan aterako dira Astelentian eta dagoeneko prest dituzte bere erritmoak. Sei talde dira guztira eta irudimeneren makina astinduz, mozorro orijinalak aterako dituzte denek era. Jendetsuek Kazkabarra eta Kirikiño taldeak dira. 200 lagun baino gehiago aterako baita bertan. Lehenak euskiak jaiak hartu ditu hizpide eta probintzia guztietako pertsonaiak izango dira protagoniak. Bilbo, Martusia ailegatu da, Donostiako danborriak, Iruñeko San Fermín, Gasteizko Zehedoa, iparraldeko Txerriak eta gure Galzandriekin bat egingez. Bigarrenak, bertiz, aktore baten inguruan antolatuta du bere dantza. John Travolta, hain zuzen. Bere hiru film ezagunenak antzektuko dituzte. *Fiebre del sábado noche*, *Grease* eta *Pulp Fiction*. Atsedema, Tenttek eta San Bernardo taldeek ehun lagun inguru bilduko dituzte. Lehenengo hiek saspigarren artera jo dute bere mozorro aukeratzeko eta *Harry Potter* eta *La Sirenia* izango dira euren txantxoak. San Bernardok, bertiz, Masai tribu afrikarren dantzak ekarriko dituzte gurea. Talde txikiak Txiribitu izango da. Mozorro guztien errega den pailazo txantxoak aukeratu dute Barrakak eta 40 gaste inguru ariko da dantzan bertan.



Barrakak. Herenegun egindako entsegu izan zen azken larunbateko saioaren aurretik. irigo TERRADILLOS



Barrakak. Geltokian jarri dute aurten barrakak boltoa, hauren gozamenarako. irigo TERRADILLOS



Apingarriak. Kaleak ere mozorrotu dituzte. irigo TERRADILLOS



Elkartak. Elkartak eta tabernak ere apaintzen dituzte. irigo TERRADILLOS

Gainerakoak ere prest

Bi euroren truke igo daitte barraketa eta txikiaren egunean, asteazkenean, guztia erdira jaitziko dute. Azken asteetan ere entseguen aritu direnak larunbateko danborradakoak izan dira. Danborriaren Karlos Muñoa eta Jose Maria Tadeo

egun hauetarako egin beharreko prestaketa

egun hauetarako egin beharreko prestaketa egin dituzte eta Inauteriak behar bezain ondo ateratzeko prest daude guztiek ere. Baita herria bera ere, egun hauetarako kolore berezietan hornitu baituzte kaleak. Herria, zintzilik ikus daitzeko

egun hauetarako egin beharreko prestaketa

egun hauetarako egin beharreko prestaketa egin dituzte eta Inauteriak behar bezain ondo ateratzeko prest daude guztiek ere. Baita herria bera ere, egun hauetarako kolore berezietan hornitu baituzte kaleak. Herria, zintzilik ikus daitzeko

egun hauetarako egin beharreko prestaketa

egun hauetarako egin beharreko prestaketa egin dituzte eta Inauteriak behar bezain ondo ateratzeko prest daude guztiek ere. Baita herria bera ere, egun hauetarako kolore berezietan hornitu baituzte kaleak. Herria, zintzilik ikus daitzeko

egun hauetarako egin beharreko prestaketa

egun hauetarako egin beharreko prestaketa egin dituzte eta Inauteriak behar bezain ondo ateratzeko prest daude guztiek ere. Baita herria bera ere, egun hauetarako kolore berezietan hornitu baituzte kaleak. Herria, zintzilik ikus daitzeko

OINETAKOAK
Ondo pasa Inauterietan!
Tel. 943 65 04 63
Nafarroa Errepubliko, 14
TOLOSA

ISASTEGI
sagardotegia
Larunbat eguerdian
IREKITA
Izatek Sagardotegi S.L.
Aldebe-Tolosa, 13 A - TOLOSA
Tel. 943 65 29 44

Ezenarro
Lehoi isobagarrak • PVC •
Hautsura aluminioko •
Egur arrotzintza
San Frantzisko, 26 • BERRIA
20400 TOLOSA • Tel. 943 31 85 36
Faxo: 943 31 56 52

Berezi
44-64
NEURRI BEREZIAK
ondo pasa inauteriak!
Herriko Kalea, 5 - TOLOSA
Tel. 943 67 49 65

KUPELA
Etorri INAUTERIAK gurekin ospatzera!
Plaza berria, 2/3 • TOLOSA
Tel. 943 67 20 70

Pintxoak ogitartekoak eta giro euskalduna

Iratox taberna
Ondo pasa inauteriak!
P. Garotabel, 29 • TOLOSA • Tel. 943 67 52 37

Xirimiri Txokolategia
Gora inauteriak!
Erreparatzaile Kalea, 40
20400 Tolosa
Tel. 943 67 62 23

in
arkitektoak & ingenierrak
merkatu & pentsioak
entzuz
eskaintza & dekorazioak
zortak & hitzak
atzerak & ukituak
Nafarroa errepubliko, 12
3040 Tolosa
Tel. 943 65 36 40

gremioen koordinazioa
Inauteriak ondo pasa!

ANOETA ▶

Alkartasunakoek
asanblada
orokorra, gaur

Gaur arratsaldean urteko asanblada orokorra egingo dute Alkartasuna jubilatuko elkartekoek. 17:30ean juntako kideak elkartuko dira bilera prestatzeko eta 18:00etan izango da asanblada biltokia. Gaienez zerrendan 2004ko memoria aurkeztuko da eta 2005eko plangintza azalduko da. Ondoren, galdera eta erreguen tartea izango da. Asanblada bukatu ondoren txistor jatea egingo da. Inauterietan bat eginez festa hauetako musikarekin giro-tuko dela meriendatxo azaldu dute Alkartasunatik.

BIDEGOIAN ▶

Hiru pilota
partida egunotan
Aurrera-Saiazek

Euskadiko Kluben Txapelketaren baitan partida ezberdinak jokatu dituzte Bidegoian eta Tolosako Aurrera-Saiaz elkarteko pilotariak. Gaur, 20:00etan, Oizperen aurka jokatu dute Tolosako Beotibar pilotalekuan. Bihar, Beotibarren eta 20:00etan ere, Zaramaga izango dute aurrean Aurrera-Saiazekoek. Azkenik, Arrigorriagako pilotalekuan izango dute partida etzi 18:00etan. Arguia taldeko pilotariak izango dituzte aurrean Bidegoian-Tolosako Aurrera-Saiazekoek.

TOLOSA ▶

Manifestazioa bat
egiteko presoek
borrokaldiarekin

Euskal presoek urtarilaren hasieratik ekin zioten borrokaldiarekin bat egiteko eskualdeko manifestazioa egingo dute gaur. 19:30ean aterako da manifestazioa Tolosako Triangulotik. Frantzia eta Espainiako espetxeetan dauden presoek txandaka hamar egunetako itxialdiak egiten ari dira beren ziegitan. Horrela uko egiten diete, esaterako, patriota irtezeari. Gaur hirugarren txanda amaituko da eta bertan hartu dute parte Lizartzako Aitor Agirrebarrena eta Villabonako Oskar Zelarain.

LEITZA ▶

Aurrekontuen
inguruan batzar
berezia gaur

Gaur gauean, 21:00etatik aurrera udal batzar berezi eta partekoa egingen dute Leitzako udaletxean, hiru gai eztabaidatzeko, hirurak ere aurtengo eta hurrengo urteetako proiektuen ingurukoak, gainera. Horrela, 2005eko aurrekontuak dituzte eztabaidagai, eta hor aurtengo inbertsio eta diru-sarreraren nondik norakoak zehaztuko dituzte. Bestalde, 2005-2008 Lau Urteko Planerako ere, herri-lanetako zer egitasmo sartuko dituzten zehaztuko dute. Udal langileen funtzionarizazioaz ere ariko dira.

TOLOSA ▶

San Blas jaiekin
aurrera, gaurkoa
azken eguna

Aurreko asteburuko ekitaldiekin bat eginez, gaur dute San Blas eguna, auzo honetan. Orduan jendetza bildu bazen eta giro atsegina izan zutelarik, jaien bigarren zatia ekinen diote eta Ostegun Gizen egunarekin bat eginez gainera. Baina Inauterietan bestalde kokatuz, meza nagusia izanen dute 11:00etan auzoko ermitan, bertako produktuen bedekapena eginez. Ondoren, 12:30etik aurrera, toka lehiketa egingen dute, auzokoentat eta Emendek elkartekoentzat.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Autogarbigarria den
komuna ireki dute

Zezen-plazako azpitan dago, lehengo kioskoaren parean; barruan ere hainbat lan egiteko baliatu dute aukera



Inauterietarako ireki nahi izan dute zezen plazako komuna. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo ireki zuten udal arduradunek autogarbigarria den herriko lehendabiziko komun publikoa, zezen-plazako azpitan.

Izan ere, azkenaldi honetan inguru horrek itxuraz aldatu du. Lehengo kiosko zaharra kendu eta zezen plazan hobekuntza batzuk egin dituzte, bide batez bertako espaloiko pasabidea oinezkoentzat zabalago eta libreago utzi. Zehazki, zezen plazako ate nagusiaren eskuinetara eraiki dute teknologia berriensuen hornituko komun publikoa: altzairu

herdoilgaitzezkoa da osoki eta autogarbigarria. Atea automatikoki irekitzen zaio, argi berde eta gorrien bidez adieraziz, eta behin barrenean egonik, di-tuen detektagailu batzuei esker, tapa jetsi egiten da eta funtzionamenduan jarri. Behin erabiltzailea atera ondoren, aldi bakoitzean, berez garbitzen dira, bai komuneko altzariak, bai zorua ere eta lehortu ere egiten dira. Zorua irristakaitza du. Epe horretan ez dago zerbitzu hau erabiltzerik.

Hamabost minuturen buruan erabiltzailea aterako ez balitz, larrialdi modura edo,

atea ireki egingen da, automatikoki.

Komun hau, beraz, atzotik martxan dago eta egunero egonen da irekita goizetik gauera, hori bai 8:00etatik, 21:00etara, jakitera eman zuten.

Zerbitzu berri hau froga modura ireki dute. «Ongi funtzionatuko balu eta herritarrek ongi hartu, gainerako lekuetan ere horrelakoak jartzea ikusiko litzateke. Dena den inbertsio handia da», zioten.

Barrenean hobekuntzak

Baina ez da zezen-plazan egin duten berrikuntza bakarra. Izan ere, lan hauek barreneko beste hobekuntza batzuk egiteko ere baliatu dituzte eta.

Horrela, jendearentzat sarrerara irteera ziurragoa izateko eran, beste ate bat egokitu dute tunel baten bidez. Lehendabiziko eta bigarren tendidoetara banakako sarrerak egin dituzte. Bestalde, komun berriak ere eraiki dituzte, lehen zeudenak berri bitartean. Bide batez, zezen-plazaren beraren egitura indartzeko baliatu dute aukera.

Ondorengo egun hauetan egingen dute zerbitzu berri hauen benetako estreina herritarrek.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Tolosaldea institutuan
odol ateraketak, atzo

Gazteei erraztasunak emate aldera izan ziren Odol Emaileen Elkartekoak



Atzo Tolosaldea institutuan zenbait lagun odola ematen. I. GARCIA

I. GARCIA

Odol Emaileen Elkartea Tolosaldea Lanbide Heziketa Instituta etorri zen atzo odol emate berrien bila. Iaz hasi zen elkartea enpresa eta institutuarekin joaten, «odola eman nahi dutenei erraztasunak jartzeko», azaldu zion HITZARI Mari Jose Arribilaga elkarteko erizainak. «Hilean behin egiten dira odol ateratzeko herrietan eta askok ezin izaten dute joan. Horregatik enpresa eta ikastetxeekin ari gara harremanetan jartzen bertara joan eta batez ere gazteengan odol emateko nahia pizteko».

Gustura daude ekimen honen lortzen ari diren emai-

tzekin. Gustura ere Tolosaldea institutuan izan duten harremanekin. Institutuko zuzendariorde den Gorka Igartuak azaldu zuenez 35 lagunek hartu zuten parte odol ateraketan. «Gehienak ikasleak izan dira eta irakasleek eta langileek ere parte hartu dugu. Orokorrean oso erantzun ona izan du deialdiak».

Orain, Odol Emaileen Elkartekoek eskualdeko enpresa handiekin harremanetan jartzeko asmoa dute, beharrezko erraztasunak emanez odol ateraketak lantokian burutu ahal izateko. Gizonezkoek urtean lau aldiz eta emakumezkoek hiru aldiz eman dezakete odola.

SANTA AGEDA BEZPERA ▶

Makila eskuan, koplari

Bi eskualdetan hainbat talde ariko dira bihar santa eskean baserri eta kaleetan



Aurreko urtean Hauspoa elkartekoak baserriz baserri aritu ziren koplak kantzen baserriz baserri eta aurten ere errepikatuko dute. HITZA

JAIONE ASTIBIA
IMANOL GARCIA

Santa Ageda bezpera eguna da bihar eta talde ugari aterako dira eskean koplak abesten bi eskualdeetan. Zenbait herritan Ostiral Mehea izan arren, berdin egingo da makila eskuan eramanez burutzen den ohitura zaharra.

Tolosan arratsaldean aterako dira hainbat elkarte: Olarrain, Gure Txokoa, Amaro, Lizardi, Ero-Etxe eta Emendekeko kideak arituko dira, besteak beste, kalez kale koplak abesten. Tolosako Orfeoian ere talde txoko bat osatu dute.

Villabonan Eresargi Abesbatzak herritarrei deialdia egin die beraiekin kantuan ateratzeko arratsaldean herriko kaleetan zehar. Bestalde, Jesusen Bihotza Ikastolako maila nagusienetakoak ere aterako dira.

Anoetan herritar talde bat aterako da, urtero legez. Trikitixaren musika lagun eta Angel Mari Peñagarikano bertolaria ondoan, baserriz baserri ibiliko dira hogeit bat lagun. Ondoren, afaltzera joango dira Goikoetxea jatetxera.

Alkizan egun berezia izango da aurtengoa. Izan ere, 50. hamarkadan utzi egin zitzaion koplak kantatzeari eta aurten berreskuratuko dute. Orain gutxi eratu den Alkiza Abesbatzatik

SANTA ESKEA ▶ HERRIZ HERRI

ADUNA

17:00. Plazatik aterata.

ANOETA

14:45. Ikastolan entsegua.
Ondoren. Baserriz baserri.

ALKIZA

17:00. Plazatik aterata.

ALEGIA

19:00. Txintxarri abesbatza.

ASTEASU

Goizez. Pello Errota eskolatik aterata, baserriz baserri.
12:00. P. Errota eskolan saioa.

IBARRA

18:00. Hauspoa elkartearen eskutik, anbulatoriotik aterata, Izaskun alderantz, baserriz baserri, Santa Eskea Millan Telleria koplariarekin.
19:00etan, Izaskunen.
Arratsaldez. Ibarako abesbatzarekin herrian zehar.

LEITZA

Goizez. Herrian eskea etxez etxe, umeek.
Arratsaldez. Baserrietan eskea, umeek.
19:00. Koplak kantari kalejira, herrian barrena, trikitilariekin, Kultur taldearen eskutik.
Ondoren. Arratsaldeko Karrapean.

TOLOSA

16:00. Olarraingo taldea, Zentrotik.
18:00. Gure Txokoa elkarte.
18:00. Orfeoiko talde txoko bat, lokaletik.
18:00. Amaro txoko taldea, auzotik.
19:30. Lizardiko taldea, elkartetik.
19:30. Ero-Etxe, elkartetik.
19:30. Emendek, elkartetik.

VILLABONA

15:00. Jesusen Bihotza ikastolakoak, Zentrotik.
18:30. Eresargi abesbatzarekin batera, kultur etxetik aterata, kalejira herrikoia.

sortu da ekimena eta heldu zein haurrak bilduko dira taldean. Gainera bi herritarrek bereziki koplak sortu dituzte herrian hizpide diren gaien inguruan eta horiek abestuko dituzte.

Santa eskean bilduko duten dirua Saharara bidaliko dute Adunan aterako diren herritarrek. Azken urteotan, udan etortzen ziren haur sahara-arentzat prestatzen zuten festarako erabiltzen zuten, baina

aurten diru hori Saharara bi-

deratzea pentsatu dute. 40 bat lagun biltzen dira eta bi taldeetan banatuko dira ahal duten baserri guztietara iristeko. Arratsaldearen bukaeran herrian bilduko dira denak eta etxeetatik ibiliko dira eskean.

Alegian Txintxarri abesbatzakoak ariko dira santa eskean. Asteasun Pello Errotako ikasleak ariko dira goizean zehar baserriz baserri.

Hauspoa elkartekoak aterako dira Ibarren, Millan Telleria koplaria lagun dutela. Ibarra-

abesbatza ere arratsaldez ibiliko da Izaskun inguruan.

Leitzan eskolako haur eta gaztetxoak etxez etxe ariko dira eskean *agiragirando* kantatuz goizez, hasieran gaztele-raz eta gero euskaraz jarraitzen duen berriz koplak. Arratsaldean kanta berdina abestuko dute baserriz baserri. Arratsaldean ere, Kultur Taldeak antolatuta, kalejira egingo da herrian barrena koplak zaharrak abestuz trikitilarien musika lagun dutela.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldia. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldia. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa, M.I. Kale Nagusia 7 (Tolosa). 943 670 648
Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaldia. 687 41 00 22
anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldia. 687 41 00 32.
ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitza. 687 41 01 18.
leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Ordenadorea. Lau Imac 92 eta 3 PC GenuineIntel (128 Hz) salgai, oso merke. 943 467 181 telefono zenbakira deitu.
Etxea. Alegiko Larraitz auzoan etxea salgai 680 57 09 52.

LANA

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da goizez, 5 orduz, etxeko lanak egiteko. 669 21 33 37 telefono zenbakira deitu, 14:00etatik 21:00etara.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ikaztegieta. Candanchura eskiatzera joateko izen-ematea udaletxean.

INAUTERIAK

Bidegoian. Albizturko haurrekin batera, Inauteri defilea, 15:00etan.

Ikaztegieta. Inauterietako ohiko jaialdia, eskolan, 15:30ean hasita.

Iruña. Inauteri festa, 11:30etik aurrera, plazan.

Tolosa. Ostegun Gizena.

09:13ean, Etxe-berriko oinordekoen udal bandoa; 11:30ean *Inauterietako zortzikoa* Udaltzaren Txistular Bandaren eskutik; 11:45ean Kabi-Alai elkarte

korporazioaren pregoia; 12:00etan suziria Plaza Zaharrean, jaien hasiera iragartzeko; 12:00etan, Pintxana eta Kabi-Alai txarangaren irteera, Arostegeia kaletik; 16:30ean, xexen-festa zezen-plazan Kabi-Alai eta Pintxana txarangek alaituta eta ondoren kalejira; 23:00etan, Aurrera Kirol elkartearen danborrada.

Tolosa. Txosnagunean, txupinazoa eta txistorrada, trikitilariak alaiturik, 12:30ean hasita, eta Irintzi Lehiaketa gauerditik aurrera.

Villabona. Haur eskolako eta herriko ikastetxeetako haurren moztar kalejira Incansables txarangearekin, 15:00etan hasita. Ondoren, askaria Errebote plazan.

JAIK

Tolosa (San Blas). 11:00etan meza nagusia bertako produktuen bedeinkapena eginez eta 12:30ean toka lehiaketa azuko eta elkarteontzat.

GORA ETA BEHERA ▶ IRATXE ETXEBESTE



Inauterien, festaren hasiera...

Azkenean bai. Azkenean iritsi dira tolosarrek hain gogoko dituzten Inauteriak. 12:00etan puntuan, udaletxeko balkoitik jaia iragartzen dituen suziria jaurtitzen dutenetik, jaia eta algarra nagusituko dira herri osoan. Asteartita bitarte askotariko ekitaldiak izango dira, eta Zaldunita egunetik aurrera moztarok gailenduko dira. Aurtengoan ere lana egin behar dugun arren, ez diogu Ostegun Gizenari oztoporik aurkitu. Gora Inauteriak! Besterik ezin dezakegu esan. HITZA

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Izurrai. Koadrilakoek egingo dizkiau hire partek.



URTE ASKOAN

Beñat Goenaga (Berrobi).
Gaur 6 urte. Zorionak eta mixelu handi asko familia osoaren partetik.



URTE ASKOAN

Tere Albizu (Tolosa).
Familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Iker Gurrutxaga (Tolosa).
Gaur 8 urte. Zorionak familiaren partetik.



ANIMO AGURRA

Oskar Zelarain.
Kepa, Sara eta Ekhi iloben partetik. Eutsi goiari!



ANIMO AGURRA

Oskar Zelarain.
Zutaz oso harro gaude. Eutsi goiari! Laster arte. Maribuu

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzek, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behean - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



Inauterietako egitaraua Inauterietako argazki bilduma...

Zure argazkiak bidaliz gero,
gure web orrian azalduko dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

www.tolosaldeko-hitza.info

